



DEBAKO UDALA

2020SPLE00009

9.Bilera: OHIKOA 2019/09/26

## **UDALEKO PLENOA. BILERA-AKTA**

### **ACTA del PLENO MUNICIPAL**

BILERA ZK.: 9  
EGUNA: 2020/9/24  
HASIERA ORDUA: 19.04  
AMAIERA ORDUA: 20.19  
TOKIA: Udaleko Batzar Aretoa

Nº: 9  
DÍA: 24/09/2020 (jueves)  
HORA DE COMIENZO: 19.04  
HORA DE FINALIZACIÓN: 20.19  
LUGAR: Salón de Plenos del Ayuntamiento de Deba

#### **BERTARATUAK:**

Gilen Garcia Boyra, alkatea  
EH Bildu udal taldea  
Itziar Irizar Beristain (bozeramailea)  
Aritz Larrañaga Unanue  
Antxon Etxeberria Larrea  
Nerea Arrizabalaga Badiola  
Antxoka Elorza Altuna

Debarren Ahotsa udal taldea  
Pedro M<sup>a</sup> Bengoetxea Loiola  
(bozeramailea)  
Ane Miren Egidazu Elosua  
Enrique Salgado Alcorta

#### **ASISTENTES:**

Gilen Garcia Boyra, alcalde  
EH Bildu Grupo municipal  
Itziar Irizar Beristain (portavoz)  
Aritz Larrañaga Unanue  
Antxon Etxeberria Larrea  
Nerea Arrizabalaga Badiola  
Antxoka Elorza Altuna

Grupo municipal Debarren Ahotsa  
Pedro M<sup>a</sup> Bengoetxea Loiola  
(portavoz)  
Ane Miren Egidazu Elosua  
Enrique Salgado Alcorta



DEBAKO UDALA

EAJ-PNV udal taldea  
Iñigo Cambronero Alkorta  
(bozeramailea)  
Miren Esnal Laskibar  
Eneritz Gómez Lázaro

Grupo municipal EAJ-PNV  
Iñigo Cambronero Alkorta  
(portavoz)  
Miren Esnal Laskibar  
Eneritz Gómez Lázaro

### HUTSEGITE JUSTIFIKATUAK

Isidor Lamariano Arostegi

Idazkaria: Jorge González  
Endemaño

### AUSENCIAS JUSTIFICADAS

Isidor Lamariano Arostegi

Secretario: Jorge González  
Endemaño

### ESAN-EGINAK ETA ERABAKIAK:

**1. OSOKO BILKURA HAU ATEAK ITXITA EGITEA, COVID-19 KUTSATZEKO EDO HEDATZEKO PREBENTZIO NEURRI GISA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.**

**GILEN:** Covid19 kutsatzeko prebentzio-neurri gisa, osoko bilkura atek itxita egitea proposatzen du.

Herritar batek udalbatzan gai ordenako puntu zehatz batean parte hartzeko eskaera egin du.

**Osoko Bilkurak aho batez onartzen du bilkura hau atek itxita egitea, eta herritar honekin salbuespena egitea, eta bilkuran zuzenean parte hartzen uztea.**

### TEMAS TRATADOS Y ACUERDOS:

**1. APROBAR, SI PROCEDE, CELEBRAR ESTA SESIÓN DE PLENO A PUERTA CERRADA, COMO MEDIDA DE PREVENCIÓN DEL CONTAGIO O PROPAGACIÓN DEL COVID-19.**

**GILEN:** Propone celebrar el pleno a puerta cerrada como medida de prevención del contagio del Covid-19.

Un ciudadano solicita participar en el Pleno en un punto concreto del orden del día.

**El pleno acepta por unanimidad la realización de esta sesión a puerta cerrada, y la excepción con este ciudadano, permitiéndole participar en la**



DEBAKO UDALA

misma.

**2. AURREKO BILKURARI (2020/07/23) DAGOKION AKTA ZIRRIBORROA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.**

Osoko Bilkurak aurreko bilkurako akta aho batez onartzen du.

**2. APROBAR, SI PROCEDE, EL BORRADOR DEL ACTA DE LA SESIÓN ANTERIOR (23/07/2020).**

El pleno aprueba por unanimidad el acta de la sesión anterior.

**3. ALKATEAREN DEKRE-TUEN KONTROLA**

**PEDRO:** 249 zenbakidun dekretua, komunikazio kontratuari dagokio. Nahiko nuke argitzea nola dagoen kontratu hori, datak nahiko nahastua ikusten baitituz.

**GILEN:** Datagatik ikusten da dekretu honek bere aurretik beste bost dekretu dituela. Osoko Bilkurara noiz ekarri, kontu administratiboa da; multzo bat egiten da eta hurrengo plenora ekartzen dira.

Baldintzen pleguak aztertzen ari dira. Orain luzapen bat egin da, tokatzen zelako, bestea egiten den bitartean, beste lizitazio bat, prozedura arrunta erabiliz.

**IÑIGO:** Nik ere berdina apuntatuta nuen. Pedrok esandakoaren haritik, dekretuaren data osoko bilkurakoa baino lehenagokoa da. Kontratu txiki bat da; gardentasuna eskatzen dugu eta eskatzen jarraituko dugu.

**3. CONTROL DE LOS DECRETOS DEL ALCALDE.**

**PEDRO:** El decreto 249 se refiere al contrato de comunicación. Me gustaría que se aclarara cómo está ese contrato, ya que las fechas están bastante confusas.

**GILEN:** Por la fecha, se ve que este decreto tiene otros cinco decretos anteriores. Es una cuestión administrativa; se agrupan y se traen al siguiente pleno.

Se están analizando los pliegos de condiciones. Ahora se ha hecho una prórroga, porque tocaba, mientras se hace la otra licitación, por el procedimiento ordinario.

**IÑIGO:** Yo también tenía apuntados los mismos. Al hilo de lo dicho por Pedro, la fecha del decreto es anterior a la del Pleno. Es un contrato menor; pedimos transparencia y la seguiremos pidiendo.



DEBAKO UDALA

**GILEN:** Ados nago jarrera honekin, eta edozein kontu argitzen jarraituko dut. Udaletxe honetan epeak jarraitzea pixka bat zaila da, baina garden-tasuna benetan betetzen dugu.

**IÑIGO:** Kontratazioa beste enpresa batzuetara zabaltzeko aukera eskatu genuen. Osoko bilkura baino lehenagoko data duen kontratatua da; erabakia hartuta zegoela jasota gertatzea nahi dugu: 16ko data dauka eta osoko bilkura 23an izan zen.

**GILEN:** Datak agertzen direnak dira, ez da aldaketarik egin. Idazkaritzak antolatzen ditu eta alkateari "pack" bat iristen zaio. Dataren gaia gehiagotan ere agertu izan da. Alkatea gardentasun osoz ari da.

**PEDRO:** Gogoratzen du Gilenek puntu horretan eman zuela erantzun bat.

**ANE:** 23an bazenekiten kontratua esleituta zegoela 16an, baino ez zenuen horrela azaldu.

**GILEN:** Orain da kontrola egiteko unea eta ez Gobernu Batzordean. Beraz, idazkariari epeak argitzeko eskatzen diot.

**IDAZKARIA:** Zuek osoko bilkurako data, 23a, ari zarete hartzen, baina

**GILEN:** Estoy de acuerdo con esa postura y seguiré aclarando cualquier cuestión. En este Ayuntamiento es un poco difícil mantener los plazos, pero cumplimos con la transparencia.

**IÑIGO:** Solicitamos la posibilidad de ampliar la contratación a otras empresas. Es un contrato que tiene fecha anterior al pleno. Queremos que conste que el acuerdo ya estaba adoptado: tiene fecha del 16 y el pleno se celebró el 23.

**GILEN:** Las fechas son las que aparecen, no se han realizado modificaciones. Los organiza secretaria y al alcalde le llega un "pack". El tema de la fecha también ha aparecido en más ocasiones. La alcaldía actúa con total transparencia.

**PEDRO:** Recuerda que Gilen dio una respuesta sobre ese punto.

**ANE:** El día 23 sabíais que el contrato estaba adjudicado el día 16, pero no lo explicasteis así.

**GILEN:** Ahora es el momento de hacer el control y no en la Junta de Gobierno. Por lo tanto, solicito al secretario que aclare los plazos.

**SECRETARIO:** Vosotros estáis tomando la fecha del 23, pero la



DEBAKO UDALA

deialdia hiru egun lehenago egiten da.

Asteburu bat ere tartean dagoela dio eta idazkariak ere 10 eguneko oporrrak izan zituela. Hori denak zaildu egiten du dekretu guztiak bukatzea.

Dekretu honek ez du esleitzen, baik zik eta soilik luzatu, eta baldintza bategin: "prozedura irekian ateratzea-rena".

Datarena ez zen sartu kontu administratibo batengatik, asteburu zegoelako eta denbora behar delako administratuzat.

Prozedura martxan dago eta pleguak ia eginda daude. Bakarrik portzentaje batzuk zehaztea falta da.

• **PEDRO:** Beste bat. Hilerriari buruz, osasun sailak egindako errekerimendua dela eta, arkitekto, aparejadore eta idazkariak dokumentazioa aurkezteko eskaera.

Nola dagoen hau jakin nahi dut.

**ITZIAR:** Hiru dokumentu eskatzen zituzten. Hiru eguneko epea zegoen eta epean bidali ziren.

convocatoria es con tres días de antelación.

Dice que también hay un fin de semana y que el secretario también tuvo 10 días de vacaciones. Todo ello dificulta la finalización de todos los decretos.

El presente Decreto no adjudica el contrato, sino que únicamente lo prorroga, con una condición: licitarlo en procedimiento abierto.

La fecha no se incluyó por una cuestión administrativa, ya que había fin de semana y se necesita tiempo para los administrativos.

El procedimiento está en marcha y los pliegos están casi hechos. Solo falta concretar algunos porcentajes.

• **PEDRO:** Otro. Solicitud de presentación de documentación del cementerio por parte del arquitecto, aparejador y secretario en relación al requerimiento realizado por el Departamento de Sanidad.

Quiero saber cómo está el tema.

**ITZIAR:** Pedían tres documentos. Había tres días de plazo y se enviaron dentro del plazo.



DEBAKO UDALA

• **PEDRO:** Informatikako zerbitzua-  
ren kontratua nola dago?

**GILEN:** Ikusita honen beharra zego-  
ela epe laburrean, aukerak aztertu  
ziren eta maila minimoko kontratua  
egin zen: zerbitzua emateko, telefo-  
noko zentralita egoteko...

**PEDRO:** (Zerbitzu hau kanporatzeko  
aukera azaltzen du).

**GILEN:** Landu beharreko gaia da.  
Erabaki horrek beste alor batzuk ere  
ukitzen ditu eta Barne Erregimenean  
landu behar dira.

Egunerokotasunerako zerbitzu mi-  
nimo bat daukagu: e-mailak, ordena-  
doreak, etxetik lan egin... baina ez  
dauka egonkortasunik.

**IÑIGO:** Galdetzen du ea lanpostu  
hori amortizatzea aurreikusten den.

**GILEN:** Hori landu nahi dute. Au-  
rreko legealdian hori adostu zen  
baina dena aztertzen ari denez,  
beste gai batzuen artean, hori ere  
berraztertu nahi dute.

• **PEDRO:** ¿Cómo está el contrato  
del servicio de informática?

**GILEN:** A la vista de la necesidad  
del mismo a corto plazo, se  
estudiaron alternativas y se realizó  
una contratación de nivel mínimo:  
para la prestación del servicio y para  
la presencia de centralita telefónica.

**PEDRO:** (Explica la posibilidad de  
externalizar este servicio).

**GILEN:** Es un tema a tratar. Esta  
decisión afecta también a otros  
ámbitos que deben ser tratados en  
Régimen Interno.

Tenemos un servicio mínimo para el  
día a día: e-mails, ordenadores,  
trabajar desde casa... pero no tiene  
estabilidad.

**IÑIGO:** Pregunta si se prevé  
amortizar ese puesto.

**GILEN:** Eso es lo que quieren  
trabajar. Eso se acordó en la  
anterior legislatura, pero como todo  
está en fase de estudio, entre otras  
cuestiones, también quieren  
analizarlo.



DEBAKO UDALA

**PEDRO:** “GFari Debako Idazkari eta Kontuhartzaile lanpostuak hutsik uzteko proposamena egitea” dekretua zer den azaltzea nahi dut.

**IDAZKARIA:** Kontu-hartzaile eta idazkaria gaikuntza nazionalekoak ez badira, sei hilero postu horiek publikoki eskaintzera derrigortuta gaude. Eta ondoren, Aldundiari jakinarazi behar zaio ea norbait aurkeztu den edo ez.

#### **4. EGUNEKO ZENTROKO TABERNA-KAFETEGIAREN KONTRATUAREN ALDAKETAREN BERRI EMAN.**

**ARITZ:** Covid 19aren testuinguruan, Eguneko Zentroko taberna itxi behar izan zen.

Udalak taberna kudeatzen duen pertsonaz kontratua du. Eta taberna itxi arren, eguneko zentroan beste zerbitzu bat ematen jarraitu behar zen: hau da, gosaria eta bazkaria prestatzea, eta horregatik kontratua aldatzea proposatu zen.

- **PEDRO:** Solicito que se explique a qué se refiere el decreto que dice “proponer a la Diputación Foral de Gipuzkoa que se declaren vacantes los puestos de Secretario e Interventor de Deba”.

**SECRETARIO:** Si interventor/a y secretario/a no son de formación nacional, estamos obligados a ofertar públicamente esos puestos cada seis meses. Y luego hay que comunicar a la Diputación si se ha presentado alguien o no.

#### **4. DAR CUENTA DE LA MODIFICACIÓN DEL CONTRATO DEL BAR-CAFETERÍA DEL CENTRO DE DÍA.**

**ARITZ:** En el contexto del Covid-19, hubo que cerrar el bar del Centro de Día.

El Ayuntamiento tiene un contrato con la persona que gestiona el bar. Y aunque se cerrara el bar, en el Centro de Día había que seguir prestando otro servicio, la preparación del desayuno y la comida, por lo que se propuso cambiar el contrato.





DEBAKO UDALA

**PEDRO:** Ados gaude, kontratazioa legala bada.

**PEDRO:** Estamos de acuerdo, si la contratación es legal.

**IÑIGO:** Gu ere ados gaude.

**IÑIGO:** También estamos de acuerdo.

Bai gustatuko litzaiguke horrelako erabakiekin batera, batzordeko teknikariaren irizpen bat aurkeztea edo txosten tekniko bat, ez baita ohiko jarduera.

Sí nos gustaría que este tipo de decisiones se acompañaran de un dictamen del técnico de la comisión o de un informe técnico, ya que no es una actuación habitual.

**ARITZ:** Tabernaren itxieraz edo kontratazioaz ari zara?

**ARITZ:** ¿Te refieres al cierre del bar o a la contratación?

**IÑIGO:** Tabernaren itxieraz.

**IÑIGO:** Al cierre del bar.

**GILEN:** Teknikariak azaldu zigun neurri prebentiboak hartu ezean zer arazo sor zitezkeen, eta taberna ixtea proposatzen zuen.

**GILEN:** La técnica nos explicó los problemas que podían surgir si no tomaba medidas preventivas y proponía el cierre del bar.

Ez zigun txostenik aurkeztu eta guk ere ez genion eskatu.

No nos presentó ningún informe, ni nosotros se lo pedimos.

**IÑIGO:** Nire ustez, guztion onerako eta legezko justifikazio bat edukitzeko, txosten tekniko bat izatea onena da.

**IÑIGO:** Considero que por el bien de todos y para tener una justificación legal, lo mejor es tener un informe técnico.

**5.- JORGE GONZÁLEZ ENDEMAÑO UDAL IDAZKARIARIA AUZITARAKO AHALORDE OROKO-**

**5. OTORGAR PODER GENERAL PARA PLEITOS AL SECRETARIO MUNICIPAL JORGE GONZÁLEZ ENDEMAÑO**





DEBAKO UDALA

**RRA EMATEA ETA ABOKATU BEZALA JARDUTEKO BAIMENA EMATEA, HALA BADAGOKIO.**

**Y AUTORIZARLE PODER POSTULAR COMO ABOGADO EN LOS TRIBUNALES A FAVOR DE TERCEROS.**

**GILEN:** Hemen bi gauza daude:

**GILEN:** Aquí hay dos cuestiones:

Lehendabizikoa, auzietarako ahalorde orokorra ematea. Hau da, Udala ordezkatzea dituen auzi judizialeetan.

La primera de ellas es el otorgamiento general de pleitos. Es decir, representar al Ayuntamiento en sus causas judiciales.

Erabakia alkateari dagokio, alkateak dituen eskumenei lotuta dauden gaitan. Honenbestez, alkateak erabaki dezake idazkariari ahalorde hori ematea. Berriz, plenoak dituen esku-menetan, plenoak erabaki beharko luke ahalorde hori ematea ala ez.

El acuerdo corresponde al alcalde en las materias que afecten a sus competencias. En consecuencia, el alcalde podrá acordar el otorgamiento de dicho poder al secretario. En cuanto a las competencias del pleno, éste debería decidir si concede o no ese poder.

Proposamen hau gauza txikiak modu erosoan egiteko da; eta baita errentagarriagoa izateko ere. Berak ondo ikusten du proposamen hau.

Esta propuesta es para hacer cosas pequeñas de forma cómoda y también para ser más rentable. Él ve bien esta propuesta.

Bigarrena, abokatu bezala jarduteko baimena ematea da.

La segunda es la autorización para ejercer como abogado.

Hau udaletik kanpo dagoen jarduera bat da.

Esta es una actividad que está fuera del Ayuntamiento.

Baimen hau baldintza batzuekin izango litzateke: Ezingo du Udalaren aurka joan, eta ezingo du Debako herritarrik dagoen prozesuetan parte hartu.

Esta autorización se realizaría con las siguientes condiciones: no podrá ir contra el ayuntamiento de Deba ni participar en procesos en los que haya ciudadanos de Deba.

Alkatearen erabakiari dagokionez, eskaera hau ondo iruditzen zaigu,

En cuanto a la decisión del alcalde, esta petición nos parece bien, pero



DEBAKO UDALA

baina beste alderdiekin kontrastatu nahi genuen. Gauza txikiak dira: izunak eta antzekoak. Bigarren partea osoko bilkurari dagokio erabakitzea.

**ANE:** Lehenengo puntua, auzietarako baimena ematea, dekretu bidez onartu zuen alkateak; beraz, guri informatzen ari al zaren galdetzen dut.

**GILEN:** Informatu eta zuen iritzia jaso. Ikusiko banu erabaki hau ez zaizuela ondo iruditzen, onartuko nuke zuen erabakia, nahiz eta alkatearen eskumena izan; bertan behera utziko nuke.

**PEDRO:** Biak batera bozkatu behar ditugu? Lehenengo zatian ez daukagu arazorik baina bigarrenarekin bai. Bere lanpostua dedikazio esklusibokoa da eta guk ez dugu onartuko.

**IÑIGO:** Ez dugu arazorik lehenengo puntua onartzeko.

Abokatuaren jarduerari dagokionez, uste dugu ezarritako baldintzekin bermatuta dagoela; beraz, ez dugu eragozpenik jarriko.

**GILEN:** Bi bozketa egingo ditugu.

Lehen puntua:

queríamos contrastarla con los demás partidos. Son cosas pequeñas: multas y similares. La segunda parte corresponde al Pleno.

**ANE:** El primer punto, la autorización para pleitos, fue aprobado por decreto del alcalde, por lo que pregunto si nos estáis informando.

**GILEN:** Informaros y recoger vuestra opinión. Si viera que esta decisión no os parece bien, aceptaría vuestra decisión; aunque fuera competencia del alcalde, la revocaría.

**PEDRO:** ¿Tenemos que votar las dos a la vez? En la primera parte no tenemos problema, pero con la segunda sí. Su puesto es de dedicación exclusiva y nosotros no vamos a aprobarla.

**IÑIGO:** No tenemos problema en aceptar el primer punto.

En cuanto a la actuación letrada, entendemos que está cubierta por las condiciones establecidas, por lo que no vamos a poner objeciones.

**GILEN:** Realizaremos dos votaciones.

Primer punto:



DEBAKO UDALA

**Osoko Bilkurak aho batez onartzen du Jorge González Endemaño udal idazkariari auzitarako ahalorde orokorra ematea.**

**El Pleno aprueba, por unanimidad, otorgar poder general para pleitos al Secretario Municipal, Jorge González Endemaño.**

Bigarren puntua:

Segundo punto:

Bozkatu ondoren, hauek dira emaitzak:

Tras la votación el resultado es el siguiente:

Bai: 9 (EH Bildu eta EAJ-PNV).

Si: 9 (EH Bildu y EAJ-PNV).

Ez: 3 (Debarren Ahotsa).

No: 3 (Debarren Ahotsa).

**Osoko Bilkurak gehiengoz onartzen du Jorge González Endemaño udal idazkariari abokatu bezala jarduteko baimena ematea, baldintza hauekin: Ezingo du Debako Udalaren aurka joan, eta ezingo du Debako herritarrik dagoen prozesuetan parte hartu.**

**El Pleno aprueba por mayoría autorizar al secretario municipal, Jorge González Endemaño, a ejercer como abogado, con las siguientes condiciones: no podrá ir contra el Ayuntamiento de Deba y no podrá participar en procesos en los que tomen parte ciudadanos de Deba.**

**6. DEBAKO MERKATARITZAREN ETA OSTALARITZAREN SEKTOREETAN COVID 19AREN AURKA HARTUTAKO NEURRIAK FINANTZATZEKO LAGUNTZEN OINARRI ARAUTZAILEAK ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.**

**6. APROBACIÓN, SI PROCEDE, DE LAS BASES REGULADORAS DE LAS AYUDAS PARA LA FINANCIACIÓN DE LAS MEDIDAS ADOPTADAS FRENTE A LA COVID-19, EN LOS SECTORES DE COMERCIO Y HOSTELERÍA DE DEBA.**

**GILEN:** Dirulaguntza bat antolatu zuen Aldundiak, baina eskatzaileak udaletxeak ziren. Herri bakoitzari kopuru bat zegokion.

**GILEN:** La Diputación organizó una subvención, pero los solicitantes eran los ayuntamientos. A cada pueblo le correspondía una cantidad.



DEBAKO UDALA

Nahiko zehatza zen, inbertsio zehatz batzuentzat, covid19ari aurre egiteko.

Proposamena prozedurarekin jarraitzea eta onartzea izango litzateke, eta horren arabera, gero egingo litzateke diru banaketa.

**Osoko Bilkurak aho batez onartzen ditu Debako merkataritzaren eta ostalaritzaren sektoreetan Covid 19aren aurka hartutako neurriak finantzatzeko laguntzen oinarri arautzaileak.**

#### **7. ONDARGAIN KAFETEGIAREN EMAKIDA LUZATZEKO ETA BAIMENTZEKO BALDINTZAK ETA PRESKRIPZIOAK ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.**

**GILEN:** Tokiko Gobernu Batzordean komentatu bezala, atzo bertan bildu ginen Gipuzkoako Kostaldean ordezkariekin. Eszenatoki desberdinak azaldu zituen, eta batez ere, Udalak jarraitu behar dituen betebeharrak azpimarratu zituen.

Lkuspuntu administratibotik, teknikariak proposatu zigun puntu honen izenburua honela idaztea. Osoko bilkura honen deialdia egun batzuk lehenago egin behar zenez, akordio batera iritsiz gero, hemen eztabaidatzeko eta erabakitzeko aukera edu-

Era bastante precisa, para determinadas inversiones, para hacer frente al Covid19.

La propuesta es continuar y aceptar el procedimiento, y en función de ello, el reparto de la ayuda se haría después.

**El Pleno aprueba por unanimidad las bases reguladoras de las ayudas para la financiación de las medidas adoptadas contra el Covid 19 en los sectores del comercio y la hostelería de Deba.**

#### **7. ACEPTAR, SI PROCEDE, LAS CONDICIONES Y PRESCRIPCIONES PARA LA PRÓRROGA Y AUTORIZACIÓN DE LA CONCESIÓN DE LA CAFETERÍA ONDARGAIN.**

**GILEN:** Tal y como se comentó en la Junta de Gobierno Local, ayer mismo nos reunimos con el representante de Costas de Gipuzkoa. Explicó los diferentes escenarios y subrayó, sobre todo, las obligaciones que debe cumplir el Ayuntamiento.

Desde el punto de vista administrativo, la técnica nos propuso que el título de este punto se redactara de esta manera. Dado que la convocatoria de este Pleno debía hacerse con anterioridad, si llegáramos a un acuerdo, tendríamos la oportunidad de



DEBAKO UDALA

kiko genuen. Baina Costasekin akordiorik lortu ez denez, honi buruz ez dugu erabakirik hartuko. Baina norbaitek nahi badu zerbait esan...

**PEDRO:** Pozten naiz segitzeaz negoziazio horrekin, ea akordioa lortzen den.

**IÑIGO:** Gustatuko litzaiguke Costas eta Haikarekin (kontratua duena) harremana ahal bezain ona izatea eta kudeaketa hau arintzen saiatzea.

**HAIKA:** Esan duzuenaren arabera, uste dut hormigoia kentzera zoaztela, Costasek eskatzen dizuelako?

**GILEN:** Hori da. Costasek egiten digu errekerimendua: zati bat edo osoa, hori da landu behar duguna. Ez dut nahi adierazpenik egitea gure asmoari dagokionez. Exigitzen zaiguna eta legearen barne dagoenaren arabera egingo dugu.

**HAIKA:** Eskatzen ari naizena zerbait niretzat eta herriarentzat ona dena. Turistikoki herria nahiko desastre dago, nire iritziz. *Ekainaren 8an, Udaletxeko 671 erregistro zenbakiarekin sartu zen dokumentazioan, 6. orrialdean, : "el artículo 69 del reglamento general de costas establece: una ocupación máxima, salvo casos excepcionales debidamente justificados, de 200 metros cuadrados, de los cuales 150 metros cua-*

debatirlo y decidirlo aquí. Pero como no se ha llegado a un acuerdo con Costas, no tomaremos ninguna decisión al respecto. Pero si alguien quiere decir algo...

**PEDRO:** Me alegra que se continúe con esta negociación, a ver si se llega a un acuerdo.

**IÑIGO:** Nos gustaría que la interlocución con Costas y Haika, que es quien tiene el contrato, fuera todo lo fluida que pudiera ser, e intentar dinamizar esta gestión.

**HAIKA:** ¿Por lo que habéis dicho, creo que vais a quitar el hormigón, porque os lo pide Costas?

**GILEN:** Eso es. El requerimiento de Costas es una parte o todo. Eso es lo que tenemos que trabajar. No quiero que realicemos declaraciones sobre nuestra intención. Haremos lo que se nos exige y lo que está dentro de la ley.

**HAIKA:** Estoy solicitando algo que es bueno para mí y para el pueblo. En mi opinión, el pueblo está bastante desastre en cuanto al turismo. En la documentación que tuvo entrada el 8 de junio, con registro de entrada 671, en la página 6: "*el artículo 69 del reglamento general de costas establece: una ocupación máxima, salvo casos excepcionales debidamente justificados, de 200 metros cuadrados, de los cuales 150 metros cuadrados podrán ser*



DEBAKO UDALA

*drados podrán ser de edificación cerrada y el resto terraza cerrada mediante elementos desmontables que garanticen la permeabilidad de vistas. A esta superficie se podrá añadir otros 70 metros cuadrados de ocupación abierta y desmontable más una zona de aseo, que no podrá superar los 30 metros cuadrados, siempre que ésta sea de uso público y gratuito.”.*

Hori dena gehitzen baldin badugu, 300 metro karratu daude, eta ez da kendu behar niri komentatu zitzaidana kendu beharko zela. Adaptazio eta inbertsio batzuk egin beharko dira.

Bakarrik eskatzen dizuet erabaki bat hartu aurretik planteatzea erabaki horrek zer galera ekarri ahal dizkion herriari.

**GILEN:** Eskerrik asko ekarpenagatik.

Balorazio hori kontutan izango dugu. Orain arte, harreman zuzena izan dugu. Gure asmoa aspektu guztiak baloratzea da. Onartu behar da luzetik datorren kontu bat dela, gora behera desberdinekin: kontratazioa, legeak zer dion, zer egoeratan dagoen, zer inbertsio egin diren... Udalak, berea den heinean, balorazioa egin behar du zalantzarik gabe eta kontutan izango ditu zuk aipatzen dituzun aldagaiak. Zu interesduna bezala, interesgarria iruditzen zait hartu-eman honekin jarraitzea. Eta

*de edificación cerrada y el resto terraza cerrada mediante elementos desmontables que garanticen la permeabilidad de vistas. A esta superficie se podrá añadir otros 70 metros cuadrados de ocupación abierta y desmontable más una zona de aseo, que no podrá superar los 30 metros cuadrados, siempre que ésta sea de uso público y gratuito.”.*

Si sumamos todo eso, hay 300 metros cuadrados, y no hay que quitar lo que a mi se me comentó que había que quitar. Habrá que realizar unas adaptaciones e inversiones.

Sólo os pido que antes de que toméis una decisión os planteéis las pérdidas que esa decisión puede suponer para el pueblo.

**GILEN:** Gracias por la aportación.

Tomaremos en cuenta la aportación. Hasta ahora hemos mantenido una relación directa. Nuestra intención es valorar todos los aspectos. Hay que reconocer que se trata de una cuestión que viene de hace tiempo, con distintos desajustes: la contratación, lo que dice la ley, la situación en la que se encuentra, las inversiones realizadas... En la medida en que es del ayuntamiento, debe hacerse una valoración y se tendrán en cuenta las variables que mencionas.





DEBAKO UDALA

ahal baldin bada, akordio baten bitartez gai hau argitzea.

Tú, como interesado, me parece interesante que se siga manteniendo esta relación. Y si es posible, clarificar esta cuestión mediante un acuerdo.

#### **8. AGROKOLOGIAREN ALDEKO HIRIEN SAREAREN MANIFESTUARI ETA MILANGO ITUNARI ATXIKITZEA, HALA BADAGOKIO.**

**GILEN:** Baztango alkateak sare honetan parte hartzeko gonbitea luzatu zigun, gutun baten bitartez. Azaltzen digu zein den sarearen asmoa, nola funtzionatzen duen eta zer onura ekar ditzakeen.

**NEREA:** Azken urteetan biztanleriaren erdia hirigunetan bizi garela, honak suposatzen duen guztiarekin: biztanleria horri elikadura iristeko, ura,... horrek suposatzen duen gainkostua errekurtsuokiko, kutsadura handiagoa, ekoizpen sistema intentsiboa... Pilaketa horiek desoreka soziala sustatzen dute. Hain azkar eboluzionatzea hiriek eta urbanizatzek suposatzen dute ekonomikoki gora behera handiak egotea. Herri inguruko elikadura ekoizpenak, nolako garrantzia daukan hirigune horiek aldatzeko orduan, eta zer onura suposatuko lukeen.

Itun honek esaten du: guk alkateok eta Udal ordezkariok, konpromiso

#### **8. ADHESIÓN AL MANIFIESTO DE LA RED DE CIUDADES POR LA AGROECOLOGIA Y AL PACTO DE MILAN, SI PROCEDE.**

**GILEN:** El alcalde de Baztan nos invitó a participar en esta red a través de una carta. Nos expone cuál es el objetivo de la red, cómo funciona y qué beneficios puede aportar.

**NEREA:** En los últimos años la mitad de la población vive en los núcleos urbanos, con todo lo que esto supone: poner a disposición de esa población alimento, el agua, con el sobre coste que supone para esa población respecto a los recursos, la contaminación mayor, el sistema de producción intensiva. Estas aglomeraciones fomentan el desequilibrio social. Evolucionar tan rápido las ciudades y la urbanización, supone un desequilibrio económico importante. La importancia de la producción alimentaria en el entorno urbano a la hora de cambiar estas zonas urbanas y el beneficio que supondría.

Este pacto dice que nosotros, los alcaldes y los representantes





DEBAKO UDALA

hauek hartzen ditugula, Milango ituna sinatzen dugulako:

municipales, nos comprometemos a firmar el tratado de Milán:

I ERANSKINA: MILANGO ITUNA

ANEXO I: PACTO DE MILÁN

Milango Ituna irakurri ondoren bozkatu egiten da.

Tras la lectura del Pacto de Milán se procede a la votación.

**Osoko Bilkurak aho batez onartzen du Milango Ituna sinatzea.**

**El Pleno aprueba por unanimidad firmar el Pacto de Milán.**

Ondoren sinatu egingo litzateke. Bizi garen garaietan nahiko argi ikusten den pausoa da. Azken hilabeteetan ikusi dugunarekin, eduki behar dugu senidetasun puntu bat.

A continuación se firmará.

Es un paso bastante claro en los tiempos que vivimos. Con lo que hemos visto en los últimos meses, tenemos que tener un punto de fraternidad.

NEREA: Milango Manifestua irakurtzen du.

NEREA: Lee el Manifiesto de Milán.

II ERANSKINA: MILANGO MANIFESTUA.

ANEXO II: MANIFIESTO DE MILÁN.

**GILEN:** la norbaitek ekarpenik egin nahi duen galdetzen du.

**GILEN:** Pregunta si alguien quiere hacer aportaciones.

**Osoko Bilkurak aho batez onartzen du Agroekologiaren aldeko hirien sarearen manifestuari eta Milango itunari atxikitzea.**

**El Pleno aprueba por unanimidad adherirse al manifiesto de la Red de Ciudades por la Agroecología y al Pacto de Milán.**



DEBAKO UDALA

### **9. ADIERAZPEN INSTITUZIO- NALA: MORIA PERTSONA ERRE- FUXIATUEN EREMUAN GERTA- TUTAKO SUTEA**

**ARITZ:** Morian pertsona errefuxiatuen eremuan gertatutako sutea dela eta, adierazpen instituzional hau aurkezten dugu:

III.ERANSKINA: MORIAKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA.

**PEDRO:** Deklarazioa onartuko dugu, baina gure ustez, adierazpena onartzeaz gain beste pauso bat gehiago eman beharko litzateke eta ikusi zer egiteko aukera dagoen Debatik.

**IÑIGO:** Deklarazioa onartuko dugu.

**Osoko Bilkurak aho batez onartzen du Moria pertsona errefuxiatuen eremuan gertatutako suteari buruzko adierazpen instituzionala.**

### **10. MOZIOA. MUNDU BAT FUNDA- ZIOA.**

**ITZIAR:** Coronavirusaren pandemia-ekin Kolonbia, Honduras eta Guatemalan sortu den egoerari buruz da.

Hainbat eta hainbat erakunde humanitario bat datoz adieraztean oso kezkatuta daudela Kolonbiako eta El

### **9. DECLARACIÓN INSTITUCIONAL- INCENDIO SUCEDIDO EN EL CAMPO DE PERSONAS REFUGIADAS DE MORIA**

**ARITZ:** En relación con el incendio en el campo de personas refugiadas de Moria, presentamos la siguiente declaración institucional:

ANEXO III: DECLARACIÓN INSTITUCIONAL DE MORIA.

**PEDRO:** Aceptamos la declaración, pero consideramos que además de aceptar la declaración habría que dar un paso más y ver qué se puede hacer desde Deba.

**IÑIGO:** Aceptaremos la declaración.

**El Pleno aprueba por unanimidad la declaración institucional sobre el incendio en el campo de personas refugiadas de Moria.**

### **10. MOCIÓN. FUNDACIÓN MUNDU BAT.**

**ITZIAR:** Trata sobre la situación creada por la pandemia del Coronavirus en Colombia, Honduras y Guatemala.

Numerosas organizaciones humanitarias coinciden en mostrar su preocupación por el tratamiento



DEBAKO UDALA

Salvadorreko gobernuek osasun egoerari eman dioten tratamendua-gatik. Herrialde hauetako estatuak errepresiboagoak, diktatorialagoak eta militarizatuagoak izan daitezkeelako, eta giza eskubideak eta adierazpen askatasuna iraganera itzuli daitezkeelako.

Horren aurrean, Debako Udaleko korporazioak, honako hau eskatzen die Euskal instituzioei, Foru Aldundiari eta Eusko Jaurlaritzari:

Itziarrek mozioa irakurtzen du.

IV ERANSKINA: MOZIOA. MUNDU BAT FUNDAZIOA.

**IÑIGO:** Mozio honetan abstenitu egingo gara.

Gure ustez, txostenetako egoerak oso sendoak dira, baina ez eztabai-daezinak: aukeraz hitz egiten du.

Lau herrialdetara mugatzen da. Udal-esparruan ere ez dugu konpromisorik, modu aktiboan inplikatu gaitzke eta, horregatik, abstenitzea aukeratuko dugu.

Bozkatu ondoren, hauek dira emaitzak:

Bai: 9 (EH Bildu eta Debarren Ahotza).

Ez: 0

Abstentzioak: 3 (EAJ-PNV).

que se han dado a la gestión de la salud los gobiernos de Colombia y El Salvador. Estos países pueden ser más represivos, dictatoriales y militarizados, y los derechos humanos y de libertad de expresión pueden volver a situaciones del pasado.

Ante ello, la Corporación Municipal de Deba, solicita a las instituciones vascas, a la Diputación Foral y al Gobierno Vasco:

Itziar lee la moción.

ANEXO IV: MOCIÓN. FUNDACIÓN MUNDO BAT.

**IÑIGO:** Nos vamos a abstener en esta moción.

Entendemos que las situaciones de los informes son muy contundentes, pero no demasiado concluyentes: habla de posibilidades.

Se ciñe a cuatro países. Tampoco tenemos un compromiso en el ámbito municipal. Podemos implicarnos de manera activa y por ello vamos a optar por la abstención.

Tras la votación estos son los resultados:

Si: 9 (EH Bildu y Debarren Ahotza).

No: 0

Abstenciones: 3 (EAJ-PNV).



DEBAKO UDALA

**Osoko Bilkurak gehiengoz onartzen du Mundu bat fundazioari buruzko mozioa.**

**El Pleno aprueba por mayoría la moción sobre la fundación Mundu Bat.**

### **11. MOZIOA. POBREZIA.**

### **11. MOCIÓN. POBREZA.**

**ARITZ:** Urriak 17. Pobrezia desagerarazteko nazioarteko egunari buruzko mozioa.

**ARITZ:** 17 de octubre. Moción sobre el día internacional para la erradicación de la pobreza.

Aritzek mozioa irakurtzen du.

Aritz lee la moción.

**V. ERANSKINA: POBREZIARI BURUZKO MOZIOA.**

**ANEXO V: MOCIÓN SOBRE LA POBREZA.**

**PEDRO:** Lehen beste herrialdetan ikusi dugu, baina orain pobrezia hemen dago.

**PEDRO:** Antes lo hemos visto en otros países pero ahora la pobreza está aquí.

**IÑIGO:** Mozioa babesten dugu eta uste dugu oinarrizkoa dela gaur egun existitzen diren organismoetara eramatea eta funtzionatzen hasteko balibideak ematea.

**IÑIGO:** Apoyamos la moción y creemos que es básico trasladarlo a los organismos que existen actualmente y dotarlos de recursos para que empiecen a funcionar.

**GILEN:** Hortaz ados.

**GILEN:** De acuerdo con eso.

**Osoko Bilkurak aho batez onartzen du Pobreziari buruzko mozioa.**

**El Pleno aprueba por unanimidad la moción sobre la pobreza.**

### **12. GALDERAK ETA ESKAERAK**

### **12. RUEGOS Y PREGUNTAS.**

**PEDRO:** Zubiaren gaia, nola dago? Kanposantua nola dago? Eta Itziarke Entitate Txikiaren errekerimendua?

**PEDRO:** ¿Cómo está el tema del puente? ¿Cómo está el cementerio? ¿Y el requerimiento de la Entidad Menor de Itziar?



DEBAKO UDALA

**IÑIGO:** Itziarko biribilgunearen arazoa pixka bat ikusi nahi nuke. Oinezkoentzako sarbidearen arazoa prentsan agertu da. Ez dakit elkarriketarik egon den eta hau konponduko denaren itzaropena dagoen.

**GILEN:** Lehenbizikoari dagokionez, onartu behar dut aurreko osoko bilkurako akatsa. Zure galderari erantzun nion "esleipena egina dagoela", baina ez dago; martxan dago orain egiteko. Abenduan martxan jarriko da. Mari Joserekin jarraitzen dugu harremanetan.

Hemen dagoen Administrazioaren arteko elkarlan honetan konfidantza eduki behar dugu.

Kontratua esleitzen ez den bitartean, nik jarraitzen dut hori sinisten, jakinda egoera ez dela batere erraza. Eta ekonomikoki ere, denok dakigu zein den; baina haien hitza hori denez, nik hori ekartzen dizuet. Espero dut urte bukaerako obrekin hasiko direla.

Edozein kasutan, berririk izango banu, komunikatuko nizueke.

**PEDRO:** Proiektua atera zen...

**GILEN:** Orain esleitzea falta da eta tramitea ofizialki hastea.

**IÑIGO:** Quisiera ver un poco la problemática de la rotonda de Itziar. Ha salido en prensa la problemática de acceso a peatones. No sé si ha habido algún diálogo y si hay esperanza de que esto se resuelva.

**GILEN:** En cuanto a la primera, debo admitir el error del Pleno anterior. A tu pregunta respondí que "la adjudicación ya está hecha", pero no está; está en marcha para hacerse ahora. Se pondrá en marcha en diciembre. Seguimos en contacto con Mari Jose.

Hay que tener confianza en esta colaboración entre Administraciones.

Mientras no se adjudique el contrato, sigo creyendo eso, sabiendo que la situación no es nada fácil. Y económicamente todos sabemos cuál es; pero como esa es su palabra, eso os transmito. Espero que empiecen la obra para final de año.

En cualquier caso, si tuviera noticias, os las comunicaría.

**PEDRO:** Salió el proyecto...

**GILEN:** Ahora solo falta adjudicar y empezar el trámite oficialmente.



DEBAKO UDALA

Nahiz eta ondo izatea espero, espekulazio puntu bat ere badago.

Aunque se espera que esté bien, también hay un punto de especulación.

· Hilerruari buruz, harrera da eztabaidan dagoena.

· En cuanto al cementerio, lo que está en discusión es la recepción.

Hiru parte daude: Irizpide teknikoak kontrastatzen ari dira. Gure arkitekto-teknikoaren txostenaren arabera eskatzen da: bentilazioak, rezezioak egin ahal izateko...eta abar.

Hay tres partes: Están contrastando los criterios técnicos. Se solicita según informe de nuestra arquitecta técnica: ventilaciones para poder recepcionar, etc.

Nire ustez, epe laburrean deituko da harrerarako bilera, eta bertan argituko da. Udal ordezkariak (arkitektoak eta aparejadoreak) ea materialak egokiak diren... eta kontu-hartzailak maila ekonomiko-juridikoa aztertzen du: eduki duen kostua.

Creo que en breve plazo se convocará la reunión de recepción y se aclarará en la misma. Los representantes municipales: la arquitecta y la aparejadora, la idoneidad de los materiales... y el interventor analiza el nivel económico-jurídico: el coste que ha tenido.

Eztabaida teknikoa da.

La discusión es técnica.

Udalak ahalik eta azkarren bukatzea nahi du. Bukatu itxuran dago. Arkitektoaren iritziz hainbat gauza daude amaitu egin behar direnak eta enpresak onartzen du gauza horiek argitu behar direla.

El Ayuntamiento quiere que se termine lo antes posible. Parece acabado. El arquitecto opina que hay cosas que hay que acabar y la empresa reconoce que hay que aclararlas.

Alde batetik, prozedura kontuak daude, baina beste aldetik, egia da enpresak ere baduela zer egin.

Por un lado, hay cuestiones de procedimiento, pero por otro lado, es cierto que la empresa también tiene cosas que hacer.

Nire ustez bi astetan gaia beste fase batean egongo da.

Creo que en dos semanas el tema estará en otra fase.



DEBAKO UDALA

**PEDRO:** Nire ustez lehenengoa obraren harrera izaten da...

**IDAZKARIA:** Hiru aldeak bildu behar dira eta Udalak harrera egin behar du.

**PEDRO:** Lehenengo da harrera, gero diruaren gaia.

**IDAZKARIA:** Osoko Bilkurak kontratatu zuenez, hau da kontratazio-organoa. Hiru hilabete izango dituzue aztertzeko txosten guztiak eta ikusteko ondo egin alden eta horrenbestez, ordaindu.

Beste gauza da noiz aurkeztu behar diren dokumentuak eta noiz egon behar duen dena eginda, baina sekuentzia hori da.

- **GILEN:** Hirugarren galdera errekerimenduari lotuta dago.

Ez daukat berririk. Errekerimendua bidali genuen. Epea daukate erantzuteko?

**IDAZKARIA:** Nahiz eta eduki, ez dute ezer esan.

Suposatzen dut saiatuko direla ahalik eta azkarren erantzuten.

Baina ez dago gure esku, guk ezin diegu ezer esan.

**PEDRO:** En mi opinión, la primera de ellas es la recepción de la obra.

**SECRETARIO:** Tienen que reunirse las tres partes y el Ayuntamiento tiene que hacer la recepción.

**PEDRO:** Primero es la recepción, después el tema económico.

**SECRETARIO:** Como fue contratado por el Pleno, es este el órgano de contratación. Dispondréis de tres meses para analizar todos los informes y para ver si se ha realizado correctamente, y así pagar.

Otra cosa es cuándo hay que presentar los documentos y cuándo tiene que estar todo hecho, pero esa es la secuencia.

- **GILEN:** La tercera pregunta es en relación al requerimiento.

No tengo noticias. Enviamos el requerimiento. ¿Tienen plazo para contestar?

**SECRETARIO:** Aunque lo tengan, no han contestado nada.

Supongo que se esforzarán en contestar lo antes posible.

Pero no está en nuestras manos, nosotros no podemos decirles nada.





DEBAKO UDALA

• **GILEN:** Azken galdera Itziarko rondarena da.

Eskari bat zegoen irizpide teknikoekin. Aldundiko teknikoak nahiko zorrotzak ziren.

Rotonda hor egoteak ibilgailuen abiadura asko motelduko du. Kontua da, inguruko Itxaspe eta Itziarko bizilagun askok esaten dutena, ebakitzen baldin badu hain garbi errepide horrek, behintzat erraztea bide bat oinezkoei edo bizikletan doazenei, segurtasun minimo bat emateko.

**ITZIAR:** Zumaiaetik datorren Santiago Bideak, Endañeta aurrean isletatik pasa eta jarraitu dezake. Arazoa da bestaldean, Etxeberri baserri inguruan, ez dagoela arzenik, autobusen paradara joateko...

Patriciarekin begiratzen ari dira Etxeberri inguruko pasoa nola hobetu. "Casco urbano" ez denez, ezin da zebrabiderik edo semafororik ipini.

**GILEN:** Arantza harremanetan ari da hobetzeko asmoz: "Beraiek gidatzen dute eta gu bidelagun gara".

Horrenbestez, 20:19etan amaitzen da Osoko Bilkura.

• **GILEN:** La última pregunta es sobre la rotonda de Itziar.

Había una demanda con criterios técnicos. Los técnicos de la Diputación eran bastante exigentes.

La presencia de la rotonda reducirá mucho la velocidad de los vehículos. La cuestión es que muchos vecinos de Itxaspe e Itziar de la zona dicen que si esta carretera separa tan claramente, al menos que se facilite una vía peatonal o ciclista para dar un mínimo de seguridad.

**ITZIAR:** El Camino de Santiago, procedente de Zumaia, puede pasar y continuar por la isleta que hay enfrente de Endañeta. Al otro lado, en la zona del caserío Etxeberri, no hay acera para ir a la parada de autobuses...

Están mirando con Patricia cómo mejorar el paso de alrededores de Etxeberri. Al no ser casco urbano, no se puede instalar ni paso de cebra ni semáforo.

**GILEN:** Arantza está en contacto con intención de mejorar. Ellos llevan la iniciativa y nosotros les apoyamos.

Sin más temas que tratar finaliza el Pleno a las 20:19 horas.



DEBAKO UDALA

Jorge González Endemaño  
Idazkaria /Secretario



Gilen Garcia Boyra  
Alkatea /Alcalde





## Hiriko elikadura politikari buruzko Milango ituna

2015eko urriaren 15a

**Munduko biztanleriaren erdia hirietan bizi da, beraz, hiriek egiteko estrategikoa dute** elikadura sistema iraunkorrak garatzeko eta dieta osasungarriak sustatzeko; elkarren artean desberdinak izan arren, hiri guztiak dira ekonomia, politika eta kultura berrikuntzaren zentroak eta baliabide publiko, azpiegitura, inbertsio eta eskumenandiak kudeatzen dituzte.

**Gaur eguneko elikadura sistemen erronka da** jende ororentzako janari egoki, seguru, lokal, justu, osasungarri eta elikagarria etengabe eta segurtasunez eskura jartzea. Hala ere, hirietako elikagaien hornikuntzak hainbat oztopori egin beharko die aurre, besteak beste, eskuragarritasun eta banaketa desorekari, ingurumenaren hondatzeari, baliabide eskasiari, klima-aldaketari, iraunkorrak ez diren ekoizpen eta kontsumo moduei, eta janariaren galera eta alferrikaltzeari.

**Urbanizazio prozesu azkarrak eragin handia du gure planetan** –ekonomian, gizartean eta ingurumenean–. Bereziki azpimarragarria da hiriak elikagaiz eta urez hornitzeko moduak berraztertze beharra, bai eta beste ondasun eta zerbitzu funtsezko batzuen hornikuntza ere.

**Hiri orotan agertzen dira gosea eta malnutrizioa, modu desberdinetan;** horiek zama handia bihurtzen dira banakoen osasunari eta ongizateari dagokienez, eta kostu social eta ekonomiko nabarmena dute familia, komunitate, udal eta estatuentzat.

**Nekazaritza-enpresa familiarrek eta elikagaien ekoizle txikiak** —bereziki, hainbat herrialdeetako emakume ekoizleak— funtsezko zeregina dute hiriak eta inguruko lurraldeak elikagaiz hornitzearakoan, elikagai-sistema erresiliente, bidezko eta kulturalki egokiak babesten laguntzen baitute. Elikagai sistemak eta balio-kateak dieta osasungarrietarantz orientatzeak kontsumitzaileak eta landa zein hiri ekoizleak berriro elkarrengana hurbiltzea ahalbidetzen du.

**Hirietako eta hiri inguruetako nekazaritzak hainbat aukera eskaintzen ditu** biodibertsitatea hiri/eskualdeetan eta elikadura-sistemetan kontserbatu eta integratzeko; horrek sinergiak sortzen lagun dezake, elikadura eta nutrizio segurtasunaren, ekosistemekin lotutako zerbitzuen eta giza ongizatearen artean.

**Elikadura-politikek lotura estua dute hirietako beste erronka eta politika askorekin,** hala nola, pobrezia, gizarte eta osasun babes, higiena eta zerbitzu higieniko-sanitarioak, lurraldearen erabileraren plangintza, garraioak eta merkataritza, sektore energetikoa,

irakaskuntza eta hondamendiei aurre egiteko ahalmena. Hori dela eta, funtsezkoa da ikuspuntu integratua, barne-hartzailea, diziplinarteko eta erakunde-artekoa izatea.

**Gizarte zibilak eta sektore pribatuak paper garrantzitsua dute** hiriak elikagaiz hornitzeko —esperientzia, berrikuntza eta kanpainak eskaintzen baitituzte elikagai-sistema iraunkorragoak lortze aldera— eta hirietako elikadura politiketan gizarte-inklusioaren eta giza eskubideen ikuspegiak txertatzeko.

**Gogoan ditugu** hiriek hartutako konpromisoak: klima-aldaketei aurre egitea; berotegi-efektuko gasen emisioa murrizteko estrategiak eta ekintzak sustatzea; klima-aldaketek elikagaien sistema urbanoetan dituzten ondorioetara egokitzen laguntzea —esate baterako, Hirien Munduko Foroaren hurrengo edizioetan edo Etxebizitzari eta Hiri-Garapen Iraunkorrari buruz laster egitekoa den Habitat III Biltzarrean—, eta, hiri mailako ekimenen bidez, biodibertsitatearen kudeaketa iraunkorra sustatzea, Dibertsitate Biologikoari buruzko Hitzarmenaren esparruan.

**Etorkizunean hiriek eta inguruko lurraldeek paper aktiboa** jokatu dute nazioarteko zenbait prozesu praktikan jartzeko garaian, hala nola, 2015aren osteko Garapen Iraunkorrerako Agendaren barruko garapen iraunkorreko helmuga eta helburuei dagozkienak. Klima-Aldaketei buruzko Nazio Batuen Esparru Hitzarmenerako (COP 21) hurrengo negoziazioetan eta Nutrizioari buruzko Nazioarteko Bigarren Biltzarrean aintzat hartuko dituzte eta, gainera, Hondamen-Arriskua Murrizteko 2015aren osteko Esparruan rol garrantzitsua izango dute.

Hori guztia kontuan hartuta, eta "*Planeta elikatzea, bizitzarako energia*" gaitzat duen Expo 2015 dela eta Milanen **bildurik**, honako hau adierazten dugu:

GUK, ALKATEOK ETA TOKIKO AGINTARIEN ORDEZKARIOK, KONPROMISO HAUEK HARTZEN DITUGU HIRIKO ELIKADURA POLITIKARI BURUZKO MILANGO ITUNA SINATZEN DUGULARIK:

1. Elikagai-sistema iraunkor, inklusibo, erresiliente, seguru eta anitzak sortzeko lan egitea, guztion eskura dagoen janari osasungarria bermatzeko, eskubideetan oinarritutako ekintza-esparru batean; helburua da elikagaien hondakinak murriztu eta biodibertsitatea zaintzeaz gain, klima aldaketen eragina arintzea eta horietara egokitzea.
2. Udal eta lurralde mailan sailen eta sektoreen arteko koordinazioa sustatzea eta, bestetik, elikadura politika urbanoaren irizpideak kontuan hartzea honako alor hauetan: elikagaiei buruzko politikan, programan eta horniduretan; gizarte-babesean; nutrizioan; zuzentasunean; elikagaien ekoizpenean; irakaskuntzan; elikadura-segurtasunean, eta hondakinen murrizketan.
3. Elikadurarekin lotutako udal politikak eta programak haiekin loturaren bat duten nazio-azpiko, nazioarteko, eskualdeko eta nazioarteko politika eta programekin koherente izan daitezen sustatzea.

4. Elikadura-sistemako sektore guztiak (tokiko aginteak, erakunde tekniko eta akademikoak, gizarte zibila, ekoizle txikiak eta sektore pribatua barne) erakartzea, elikaduraren alorrean politikak, programak eta ekimenak garatu, gauzatu eta ebaluatzearen.

5. Hiri-mailan dauden politikak, planak eta arauak berrikusi eta aldatzea, elikadura sistema bidezkoagoak, erresilienteagoak eta iraunkorragoak sortzen laguntzeko.

6. Hiri bakoitzean, Ekintza-Esparrua abiapuntutzat hartzea hiriko elikadura sistema propioa antolatzeko; orobat, egindako aurrerapenak partekatzea esku hartzen duten hiriekin, bakoitzaren nazioko gobernuekin eta, egoki bada, nazioarteko erakundeekin.

7. Beste hiri batzuk bultzatzea elikadura-politiken aldeko gure ekintza-esparruan parte hartzera.

**Sinadura:**

The image shows a handwritten signature in black ink over a circular blue official stamp. The stamp contains the text 'DEBAKO ALKATEZEA' at the top and 'ALCALDIA DE DEBA' at the bottom, with a central emblem featuring a castle and two lions. The signature is written in a cursive style.

DEBAko hiria ordezkatzuz



## Pacto de política alimentaria urbana de Milán

15 de octubre de 2015

**Considerando que las ciudades, donde reside la mitad de la población mundial, juegan un papel estratégico** para el desarrollo de los sistemas alimentarios sostenibles y la promoción de dietas saludables, y que, a pesar de ser diferentes entre sí, todas las ciudades constituyen un centro de innovación económica, política y cultural, y gestionan grandes recursos públicos, infraestructuras, inversiones y competencias;

**Considerando que los sistemas alimentarios actuales están llamados a** ofrecer un acceso constante y seguro a una variedad de alimentos adecuados, seguros, locales, justos, saludables y nutritivos para todos; que el abastecimiento alimentario de las ciudades se enfrentará a diferentes obstáculos, entre ellos, el desequilibrio en términos de acceso y distribución, el deterioro ambiental, la escasez de recursos y el cambio climático, formas de producción y consumo no sostenibles, las pérdidas y el desperdicio de alimentos;

**Considerando que el proceso de urbanización acelerado tiene un profundo impacto sobre nuestro planeta** – en el ámbito económico, social y ambiental – con énfasis en la necesidad de reconsiderar las formas de abastecimiento de los productos alimenticios y del agua a las ciudades, como también de otros bienes y servicios esenciales;

**Considerando que el hambre y la malnutrición, en diversas formas, coexisten** dentro de todas las ciudades convirtiéndose en una carga pesada en términos de salud y bienestar individual, y en un coste social y económico notable para familias, comunidades, ayuntamientos y estados;

**Considerando que las empresas agrícolas familiares y los pequeños productores de alimentos**, (en particular las mujeres productoras en diferentes países) juegan un papel fundamental en el abastecimiento de alimentos en las ciudades y los territorios colindantes, contribuyendo a preservar sistemas alimentarios resilientes, justos y culturalmente adecuados; y que la reorientación de los sistemas alimentarios y de las cadenas de valor a favor de dietas sostenibles permite de volver a acercar consumidores y productores rurales y urbanos;

**Considerando que la agricultura urbana y periurbana ofrecen diferentes oportunidades** para la conservación e integración de la biodiversidad en el contexto urbano/regional y en los sistemas alimentarios, contribuyendo así en la creación de sinergias entre seguridad alimentaria y nutricional, los servicios relacionados a los ecosistemas y el bienestar humano;

**Considerando que, dada la estrecha relación existente entre las políticas alimentarias y muchos otros desafíos y políticas a nivel urbano** - tales como la pobreza, la protección social y sanitaria, la higiene y los servicios higiénico-sanitarios, la planificación del uso del territorio, los transportes y el comercio, el sector energético, la instrucción, y la capacidad de reacción a las catástrofes - es esencial adoptar un enfoque integrado comprensivo, interdisciplinar e interinstitucional;

**Considerando que la sociedad civil y el sector privado desempeñan un papel clave** para el abastecimiento de alimentos en las ciudades, contribuyendo experiencia, innovación y campañas a favor de sistemas alimentarios más sostenibles, y para la incorporación de los enfoque de inclusión social y derechos humanos en las políticas alimentarias urbanas

**Recordando** los compromisos asumidos por las ciudades para hacer frente a los cambios climáticos; para promover estrategias y acciones dirigidas a la reducción de las emisiones de gases de efecto invernadero y favorecer la adaptación a los efectos de los cambios climáticos sobre los sistemas alimentarios urbanos (por ejemplo, en ocasión de ediciones sucesivas del Foro Urbano Mundial y de la inminente Conferencia sobre Vivienda y Desarrollo Urbano Sostenible Habitat III); y para la promoción de la gestión sostenible de la biodiversidad a través de iniciativas a nivel urbano en el marco del Convenio sobre la Diversidad Biológica;

**Considerando que** las ciudades y los territorios colindantes jugarán en el futuro un papel activo a la hora de llevar a la práctica los procesos internacionales como las metas y los Objetivos de Desarrollo Sostenible

(SDG), en el marco de la Agenda de Desarrollo Sostenible post-2015; serán involucradas en las próximas negociaciones para el Convenio Marco de las Naciones Unidas sobre los Cambios Climáticos (COP 21); para contribuir a la iniciativa Zero Hunger Challenge, abordar la cuestión de las dietas urbanas sostenibles durante la Segunda Conferencia Internacional sobre la Nutrición, y asumir un papel importante en el Marco post-2015 para la Reducción del Riesgo de Catástrofes;

**Reunidos** en Milán, con motivo de la Expo 2015, dedicada al tema *Alimentar el Planeta, Energía para la Vida*, afirmamos lo siguiente:

**NOSOTROS ALCALDES Y REPRESENTANTES DE LAS AUTORIDADES LOCALES, AL FIRMAR EL MILAN URBAN FOOD POLICY PACT, NOS COMPROMETEMOS A:**

1. Trabajar para desarrollar sistemas alimentarios sostenibles, inclusivos, resilientes, seguros y diversificados, para asegurar comida sana y accesible a todos en un marco de acción basado en los derechos, con el fin de reducir los desperdicios de alimentos y preservar la biodiversidad y, al mismo tiempo, mitigar y adaptarse a los efectos de los cambios climáticos;
2. Promover la coordinación entre departamentos y sectores a nivel municipal y territorial, favoreciendo la inclusión de consideraciones relativas a la política alimentaria urbana dentro de las políticas, los programas y las iniciativas en campo social, económico y ambiental, que interesen, entre otras cosas, la distribución y el abastecimiento alimentarios, la protección social, la nutrición, la equidad, la producción alimentaria, la instrucción, la seguridad alimentaria y la reducción de los desperdicios;
3. Promover la coherencia entre las políticas y los programas municipales relativos a la alimentación y las políticas y los procesos sub-nacionales, nacionales, regionales e internacionales pertinentes.
4. Involucrar a todos los sectores del sistema alimentario (incluidas las autoridades locales, los entes técnicos y académicos, la sociedad civil, los pequeños productores y el sector privado), para el desarrollo, la actuación y la evaluación de políticas, programas e iniciativas en campo alimentario;
5. Revisar y modificar las políticas, los planes y las normas existentes a nivel urbano para favorecer la creación de sistemas alimentarios justos, resilientes y sostenibles;
6. En cada ciudad, emplear el Marco de Acción como punto de partida para organizar el propio sistema alimentario urbano y compartir los avances entre las ciudades participantes, los gobiernos nacionales de pertinencia y las organizaciones internacionales, en su caso;
7. Promover la participación de otras ciudades en el marco de nuestra acción a favor de las políticas alimentarias.

**Firma:**

(Nombre del representante autorizado de la ciudad o gobierno local)

En representación de (ciudad de \_\_\_\_)

Fecha:





## MANIFESTUA: AGROEKOLOGIAREN ALDEKO HIRIEN SAREA

Espainiako Estatuko bizilagunen hiru laurden baino gehiago hirietan bizi dira eta, gaur egun, hirietan ere kontsumitzen dira elikagaiak gehien. Elikagaien kontsumoa, ekoizpena, banaketa eta kontserbazioa funtsezko prozesuak dira gure gizartearentzat eta gure ingurunerako. Nekazaritza-eremu periurbanoek ingurumen-funtzio arras garrantzitsuak dituzte, bai sozialak bai ekonomikoak. Azken hamarkada hauetan, ordea, hiriak beren euskarri-lurraldeari bizkarra emanik hazi dira, inguruko lur emankorrik gehienak suntsituta. Horren ondorioz, hiriek alde batera utzi dituzte nekazaritza-eremuek -elikaduraz harata- gizarteari ematen dizkioten zerbitzu ugariak eta funtsezkoak.

Elikadura-sistema industrial eta globalizatuak gizarte-arazo larriak eragiteaz landara, berotegi-efektuko gas isuriaren herena baino gehiago sortzen ditu, eta sistema horrek berak eragiten du, halaber, basa biodibertsitatearen, biodibertsitate landuaren eta lur emankorraren galera. Ibai eta akuiferoak, gainera, kutsatu eta agortzen ditu. Bertzalde, hortxe daude dietari loturiko arazoak mundu zabalean (800 milioi gizon-emakume dira gose, eta gizadiaren ia laurden batek gainpisua, obesitatea edota bertze arazo batzuk dauzka); aldi berean, alferrik galtzen dira ekoizten diren elikagaien % 35.

Hiriek, gaur egun, elikadurari loturiko hainbat erronka dituzte. Erronkak elkarri lotuta daude eta ekin behar zaie. Batetik, geldialdi ekonomikoa gainditzea, tokiko baliabideak baliatuz, gizartean aberastasuna sortzen baitute, bai eta enplegu duina ere. Eta bertzetik, nekazaritza-lur urbanoak eta periurbanoak berreskuratu eta zaintzea, hurbileko eta kalitatezko elikagai-hornidura ziurtatze aldera, eta era berean, nekazaritza-lur biziari eta ongi kontserbatuari loturiko ingurumen zerbitzuak berreskuratzea. Ezinbertzekoa da egungo elikadura-ereduak dakarren zaurgarritasuna murriztea, egungo ereduaren funtsa baita hiriak urrutiko lekuetatik heldu diren elikagaiz hornitzea; eta leku horiek gero eta urrunago daude. Horrek, izan ere, energia handia kontsumitzea dakar berekin eta atmosferara isuriak botatzea; bereziki, aldaketa globaleko garaiotan.

Erronka horien munta ikusirik, agroekologia etorkizuneko proposamena da, tokian tokiko elikadura-sistemetan oinarritua; sistema horiek ekonomia zirkularrean dautza, bai eta nekazaritzaren kudeaketa jasangarrian ere, eta ekologiaren printzipioetan daude bermatuak. Horrez gain, partaidetzan eta elikadura burujabetasunean oinarrituriko gobernantza-eredua proposatzen du, lurralde-eskala ezberdinak egituratuta. Halaber, ekitate soziala sustatzen du, elikagai freskoak, jasangarriak eta kalitatezkoak eskuratzeko bidea hobetuta; bereziki, errenta apaleko gizarte taldeentzat. Eta, azkenik, ekoizpen-sektorearen protagonismoa berreskuratzen saiatzen da elikagai hornidurari dagokionez, ekoizleen errenten duintasunari eutsita, eta ekoizleek ematen dituzten zerbitzu ekosistemikoak mantenduta.

Bide horretan aitzina doazen prozesu aunitz bultzatu dira azken urteotan, hiriek elikadura-sistema justu eta jasangarrietaratzeko duten eginkizuna nabarmenduta. Espainiako Estatuan, honako ekimenei lotutako prozesuek izan dute eragin berezia:

Elikadura Burujabetasunaren aldeko Karta gure udalerrietatik ekinez (2014), Milango Hirietako Elikadura Politikarako ekitaldia (2015) eta Elikadura Burujabetasunaren, Ingurumen Hezkuntzaren eta Lurraldearen Jasangarritasunaren aldeko Intervegas Ituna (2015). Maila goragoko eskala batean azpimarratzekoak dira Aalborgeko Karta (1994); Europako Batzorde Ekonomiko eta Sozialaren Irizpena «Nekazaritza periurbanoari» buruz (2005/C 74/12); edota Nekazaritza Periurbanoko Karta (2010). Nazioarteko bertze akordio zenbaitek ere nabarmentzen dute hiriek elikadura-sistemen jasangarritasunean duten eginkizun garrantzitsua, hala nola Hiri Agenda Berriak (Habitat III Goi bilkura, Quito, 2016). Era berean, elikadura-eredua aldatzeari ekin beharra azpimarratu da; adibidez, bai Klimaren Gailurrean (Paris, 2015) bai Nazio Batuetako Garapen Jasangarriko Helburuetan (2015) mundu osorako jasotako erronkak betetzeko.

Manifestu honen bidez, ekimen horiek guztiei harrera egin, osatu eta haien garapenean lagundu nahi dugu, guztiak ere edukiz eta konpromiso tinkoz beteta. Horretarako, agiri honek halako egituraketa bat ezarri nahi du tokian tokiko elikadura-sistemekin bat heldu diren hirien artean; betiere ingurumena errespetatuko duten sistema jasangarriak, barneratzaileak, erresilienteak, seguruak eta dibertsifikatuak nahi ditugu, jende guztiari janari osasungarria, jasangarria eta irisgarria ziurtatuko diotena, eta gainera, tokiko enplegua bultzatuko dutena, Agroekologiaren eta Elikadura Burujabetasunaren ikuspegiekin bat.

Horrela, **manifestu hau sinatu dugun hiriok** ekintza-planak abiarazteko **konpromisoa hartzen dugu** neurri zehatz eta berezkoen bitartez; konpromisoa, halaber, tresna egokiak garatzeko, neurriak bete ote diren ikusi eta ebaluatze aldera, eta konpromisoa, azkenik, behar bezalako ideiak eraikitze, plan horiei kohesioa eta etorkizunerako proiektzioa emate aldera, honako alderdiotan bederen:

**1. Aintzat hartu behar dira** bai nekazaritza periurbanoa bai hiria-landa harremanak, eta aintzat hartu ere nekazarien lanbide, ekologia eta gizarte arloko jarduera gizartean, ekonomian, politikan eta administrazioan, nekazarien aldeko politika publikoak bultzatuta, ikerketa, hedapen eta prestakuntza agroekologikoak sustatuko dituzten politikak barne.

**2.- Lur emankorra eta lan agronomiko onak zaindu behar dira**, ingurune urbanoen eta periurbanoen ekoizpen-gaitasuna berreskuratzeko, betiere ikuspegi agroekologikoarekin bat, behar bezalako figurak eta prozesuak abian jarrita, ekoizpen-ekimenei lurra eskuratzeko modua izan dezaten, abeltzaintza eta nekazaritza ekologikora bideratzeko, bereziki gazte eta emakumeen artean.

**3.- Tokian tokiko merkaturatzea**, hurbileko nekazaritza ekologikoa bultzatzeko, zirkuitu laburretan oinarritua, baliabide publikoak erraztuta (materialak nahiz immaterialak) eta baliabide pribatuak xede berbererako mugiarazita, betiere arreta berezia merkaturatze-esparruetan paratuta (merkatuak, dendak, jatetxeak, etab.), bai eta erosketa publiko jasangarriko prozesuetan ere.

**4.- Gizartea sentsibilizatzea**, informazio eta komunikazio programak garatze aldera, nekazaritza-lanaren balorazioa areagotzeko eta agroekologian oinarrituriko kontsumo-

ereduaren onurak handitzeko, eta era berean, nekazaritzako paisaia eta kultur ondarea gehiago baloratzeko.

**5.- Udal kudeaketa eta gobernantza**, administrazioko departamentuen eta mailen arteko koordinaziorako, Hiria-Eskualdeko Elikadura Sistema Jasangarriak sustatuta, eta berariazko entitate publikoak sortuta elikadura politikak bultzatzeko; udal baliabideak eta araudiak berrikusi eta egokitzeko, tokiko elikadura-sistema justuak eta jasangarriak sustatze aldera; eta administrazioak eragile aunitzeko eta maila aunitzeko partaidetza-prozesuak bultzatzeko, ikuspegi agroekologikoarekin bat datozen organo kolegiatuak, hiri-estrategiak eta lurralde-politikak garatze aldera.

**6.- Hirien sareen egituraketa eta hedapena**, Milango Itunak Hiriko Elikadura Politikei buruz darabilen Ekintza Esparrutik abiatuta; eta aurrerapenen jarraipena eta monitorizazioa egiteko adierazleak eta sistemak garatzea; tokiko aurrerapenak beste hiriekin partekatze eta estatuan nahiz nazioartean diren antzeko beste sareekin lankidetzan aritzeko.

Horretarako, **agiri honek Agroekologiaren aldeko Hirien Sarea osatu du**, erran nahi baita, sarea esparru anitza da, hiriek eta tokiko bertze lurralde-entitate batzuek osatua, tokiko gizarte erakundeek nahiz ekonomia eta ikerketa arloko eragileek lagunduta, guztiek ere lurraldeetara egokitutako elikadura-sistema jasangarri eta justuen alde dihardutenak.



Deban, 2020ko irailaren 24an.





## MORIA PERTSONA ERREFUXIATUEN EREMUAN GERTATUTAKO SUTEA DELA-ETA ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

Badira bost urte Morian, Grezian, pertsona errefuxiatuentzako eremua sortu zenetik. Hasieran 3.000 pertsonentzat sortutako eremu hau kontrolik gabe hazi eta hazi da (gaur egun 12.000 lagun ditu), Europak beste alde batera begiratu duen bitartean eta estatuek pertsona errefuxiatuak artatzeko konpromisoa (2015 eta 2016 artean sinatutako banaketa kupoa) alboratu duten bitartean.

Hirugarren sektoreko eragileek eta gobernuz kanpoko erakundeek behin eta berriro salatu dute Moiran bizirautean duten pertsonen baliabide falta. Mundu mailako osasun alarma egoerak eta azkenaldiko eraso ultraeskuindarrek bizi baldintza horiek zaildu egin dituzte.

Azkenean, Moria lehertu da. Lau sute txikirekin hasi zena sute erraldoi bihurtu zen, Europako errefuxiatuen esparrurik handiena errez. Atzoko datuen arabera, 35 pertsona errefuxiatuaren positiboa baieztatu zen, COVID19 birusaz, eta beste 125 pertsona berrogeialdi hertsia egiten ari ziren. Horrelako eremu batean ezinezkoa da segurtasun neurriak aurrera eraman ahal izatea, ezta gutxieneko distantzia mantentzea ere, higiene neurriak bermatzea...

Sutea dela eta, bertako biztanle guztiek ihes egin behar izan dute. Batzuek zuten gutxia gainean hartzeko abagunea izan dute; beste batzuek, aldiz, zeuden bezala alde egin dute.

Orain, 12.000 lagunetik gora sakabanatuta daude Moria inguruan. Jendea sakabanatuta dago, haurrak galduta daude beraien gurasoengatik galdezka, lagundu gabeko adin txikiko haurrak identifikatzen saiatzen ari dira, ur eskasia dago eta etengabe hori eskatzen ari dira.

Elkarte eta erakundeak egoeraren mapeoa egiten ari dira, pertsona errefuxiatuak non pilatu diren aztertzen eta janaria nola banatu eta haiengana nola heldu baloratzen. Lan hori egiten ari direnen artean, Zaporeakeko kideak daude, gaur egun zerbitzu oinarrizko bat ematen dauden erakunde bakanetakoak direlarik.

Horiek horrela, honako hau proposatzen dugu:

- Debako Udalak "harrera hiritzat" du bere burua, eta elkertasuna adierazi nahi die haien bizilekueetatik alde egin beharrean diren pertsonen. Eta gatazka politiko eta militarretatik ihes egiten duten pertsona errefuxiatuak hartzeko prestutasuna adierazten du, baita konpromiso bera duten beste erakundeekin lan egitekoa ere.

- Debako Udalak, Eusko Jaurlaritzarekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin bat, iheslariak hartzeko eta integartzeko harrera planari eusteko konpromisoa berresten du, eta xede

horretarako estrategiak, programak eta baliabideak zehaztuko ditu, baita erakundeen eta gizarte antolakundeen arteko elkarlanerako esparruak ere.

· Debako Udalak Espainiako Gobernuari eta Europako erakundeei eskatzen die har ditzatela premiazko neurriak krisi humanitario honi erantzun aktiboa emateko, elkartasuna eta justizia oinarrian direla, eta politika bateratu bat egin dezatela immigrazio eta asilo arloan, pertsonen lehentasuna emanaz eta giza eskubideen zaintza bermatuz. Gerra hauetatik ihes egiten duten edo tragedia hau aprobetxatzen duten mafien biktimak diren pertsonak hartzeko beharrezko bitartekoak bidera ditzatela ere eskatzen die.

· Debako Udaltzarak Gipuzkoako Foru Aldundiari eta Eusko Jaurlaritzari Moriako tragediaren aurrean jarrera aktiboa eta solidarioa har dezatela eta haren ondorioak arintzeko eskura dituzten bitartekoak bidera ditzatela eskatzen die.

  
GILEN GARCÍA BOYRA  
Debako alkatea

The image shows a blue circular official stamp of the Debako Alkatezia (Municipality of Deba). The stamp contains the text 'DEBAKO ALKATEZIA' at the top and 'ALCALDIA DE DEBA' at the bottom. In the center is a coat of arms. A handwritten signature in black ink is written over the stamp. Below the signature, the name 'GILEN GARCÍA BOYRA' and the title 'Debako alkatea' are printed in black.

Deban, 2020ko irailaren 24an.



## DECLARACIÓN INSTITUCIONAL SOBRE EL INCENDIO SUCEDIDO EN EL CAMPO DE PERSONAS REFUGIADAS MORIA

Hace cinco años que se creó en Moria, Grecia, un campo para personas refugiadas. Este espacio, inicialmente creado para 3.000 personas, ha ido creciendo sin control (en la actualidad, viven allí 12.000 personas), mientras que Europa ha mirado para otro lado y los estados han abandonado su compromiso de atender a las personas refugiadas (cupos para el reparto de refugiados firmados entre 2015 y 2016).

Agentes del tercer sector y organizaciones no gubernamentales han denunciado reiteradamente la falta de recursos de las personas que sobreviven en Moria. La situación de alarma sanitaria mundial y los recientes ataques de la ultraderecha han hecho que sus condiciones de vida sean todavía más duras.

Al final, Moria ha explotado. Lo que empezó con cuatro pequeños incendios se convirtió en uno enorme, que ha quemado el mayor campo de refugiados de Europa. Los datos de ayer confirmaron el positivo por COVID-19 de 35 personas refugiadas; otras 125 estaban en cuarentena estricta. En un lugar de estas características no es posible adoptar medidas de seguridad, ni mantener una distancia mínima, ni garantizar las necesarias medidas de higiene...

Debido al incendio, todas las personas que vivían en el campo han tenido que huir. Algunas de ellas han tenido la oportunidad de llevarse con ellas lo poco que tenían; otras se han ido tal como estaban.

Ahora, más de 12.000 personas se encuentran dispersas por los alrededores de Moria. La gente está desperdigada; los niños están perdidos y preguntan por sus padres; se está tratando de identificar a menores que están solos; hay escasez de agua, y eso es precisamente lo que están demandando constantemente.

Las asociaciones e instituciones están elaborando un mapeo de la situación, que les ayude a averiguar dónde se han concentrado las personas refugiadas y a poder valorar cómo distribuir la comida y cómo llegar a estas personas. Entre los participantes de este trabajo se encuentran las y los miembros de Zaporeak, una de las pocas organizaciones que se mantienen en el lugar ofreciendo un servicio básico.

Por todo ello, presentamos la siguiente declaración institucional:

- El Ayuntamiento de Deba se proclama "ciudad de acogida", y quiere expresar su solidaridad a las personas que tienen que huir de los lugares en los que viven. Además, declara su disposición a acoger a personas refugiadas que huyen de conflictos políticos y militares, así como a trabajar con otras instituciones que tengan el mismo compromiso.



- El Ayuntamiento de Deba, de acuerdo con el Gobierno Vasco y la Diputación Foral de Gipuzkoa, ratifica su compromiso de continuar con el plan para la acogida e integración de personas refugiadas, para lo cual definirá estrategias, programas y recursos, así como ámbitos de colaboración entre instituciones y organizaciones sociales.
- El Ayuntamiento de Deba solicita al Gobierno español y a las instituciones europeas que adopten medidas urgentes para dar una respuesta activa a esta crisis humanitaria, medidas basadas en la solidaridad y en la justicia, y que establezcan una política común en materia de inmigración y asilo, dando prioridad a las personas y garantizando la protección de los derechos humanos. También les solicita que pongan los medios necesarios para acoger a las personas que escapan de estas guerras o que son víctimas de las mafias que se aprovechan de esta tragedia.
- El Pleno del Ayuntamiento de Deba solicita a la Diputación Foral de Gipuzkoa y al Gobierno Vasco que adopten una actitud activa y solidaria ante la tragedia de Moria y contribuyan con todos los medios a su alcance a paliar sus consecuencias.

  
GILEN GARCÍA OYBA  
Alcalde de Deba



en Deba, a 24 de Septiembre de 2020



## MUNDU BAT FUNDAZIOA - Zioen azalpena

COVID-19aren pandemiagatik sortutako gaur egungo osasun-krisiaren ondorioz, hainbat herrialdek derrigorrean ezarri behar izan dituzte konfinamenduak, etxeratzeko aginduak, mugitzeko murriztapenak eta kutsapenen kurbari eusteko beharrezko beste neurri batzuk. Kasu guzti-guztietan, ezinbestekoa da herritarrek egoera zein den ulertzea eta laguntzea, mehatxu horri aurre egiteko.

Edonola ere, Mundubat Fundazioa, Herrien Talde Juridikoa edo PARES Fundazioa GGKE-ek egindako zenbait txostenetan azaldu denez, Kolonbian, Hondurasen, Guatemalan eta El Salvadorren baliteke bertako gobernuek osasun-krisi hori erabiltzea bizitza publikoaren bermilitarizaziorako prozesua, atzerakada demokratikoak eta giza eskubideen urraketak justifikatzeko esparru moduan. Hori dela eta, atzera egingo lukete (urteak edo hamarkadak ere bai) herrialde horiek eta nazioarteko erkidegoak egin duten ahaleginean diktadura militarren eta barruko gatazka armatuen iragana atzean uzteko. Tristeia izan arren giza eskubideen urraketan historial luzeagatik ospetsuak diren indar publikoen ez-zigorgabetasunean erdietsitako lorpenak eta erkidego etniko zein landa-erkidegoentzako segurtasun-mekanismoen konkista arriskuan daude.

Konfinamenduko epealdien ondorioz, biztanle-sektore handiak txirotasunean erori dira, eta, ekonomia informalean menpe bizi direnez, ez dute diru-sarrerarik sortzeko modurik, ezin direlako kalera irten. Gainera, oso kontuan hartu beharra dago oinarrizko saskia garestitu egin dela hilabeteotan. Hori dela eta, ezin dute erosi ez kutsapena prebenitzeko behar den osasun-materialik ez hain oinarrizkoa den janaririk. Osasun-arlokoa eta, batez ere, elikadura-arlokoa den krisiari aurre egiteko asmoz, herritarrek laguntza humanitaria eskatzeko berezko ekimena jarri dute abian, eta, horretarako, zapi gorriak jarri dituzte gosea eguneroko mehatxu bihurtu den etxeetako leihoetan. Hala ere, badirudi kasuan kasuko gobernuen erantzunik jaso ez dutela.

Orain indar militarpean dauden hirietan, modu arbitrarioan ari dira jendea atxilotzen, eta, ostean, inolako bitartekaritza judizialik gabe askatasuna kentzen diote "prebentziorako zentroetan". Bertan, atxilotuak atxikitzen dituzte osasungarritasunik gabeko baldintzetan, pilatuta eta elikagai askorik gabe. Hori dela eta, leku horietan, jende osasuntsua kutsatzen da. Herritarrek goseteagatik egin dituzten protestaldietan, manifestariak ere hil dituzte indar militar horiek.

Estatuaren bermilitarizaziorako ez ezik, badirudi osasun-larrialdia Bake Hitzarmenak betetzen ez dituzten ekintza militarren garapenerako aitzakia ere badela. Kolonbian, hain zuzen ere, ez dute Legez Kanpoko Erabilerako Laborantzak Ordezkatzeko Programa betetzen, nahiz eta 2016ko Bake Hitzarmenen funtsezko osagaia izan. El Salvadorren, Polizia Nazional Zibila ezeztatzen ari dira (1992ko Bake Hitzarmenen ondorioz sortu zen, 1960-1970eko diktadura militarren ondorioz ezarritako estatuko aurreko indar publiko militarrek ordezkatzeko eta atzean uzteko, aurretiazko hamarkadetan hainbatetan urratu zituztelako giza eskubideak), eta eguneroko bizitzaren kontrola botere militarren esku dago berriro.

Guatemalan, esate baterako, laguntza humanitario eta sanitario urria ere kudeatzen du indar militarrek, erakunde sanitario edo humanitarioek kudeatu beharrean. Hori dela eta,

laguntza horiek (elikagaiak eta osasun-materiala) tokiko alkatearen edo gobernu nazionalaren aldeko bakarrik ematen zaizkie.

Herralde horietako komunikabide nagusiek ez dute egoera horien berri ematen, baina kazetari bateratuek eta alternatiboek, bai, ordea. Hori dela eta, zentsura, erasoak eta jazarpen telematikoak jasaten ari dira. Guatemalan, agintariek Zigor Kodeari heltzen diote, gaur egun ofiziala ez den edozein informazio zentsuratzeko. Herralde horretan bertan (ustelkeria-indizeak nahikoa kezkarriak direla kontuan hartuta), susmatu egiten dute osasun-larrialdiari aurre egiteko nazioarteko eta nazio-mailako fondoak desbideratzen ari direla.

Hondurasen, giza eskubideen erakundeek adierazi dutenez, indar militar eta polizialek hainbatetan urratu dituzte giza eskubideak, eta torturak egin dituzte konfinamenduko testuinguruetan; esate baterako, urperatzea, gas negar-eragilez bustitako eskuoihalak jartzea edo deskarga elektrikoak ematea, baina, batez ere, LGTBI erkidegoari (oso-oso estigmatizatuta dago herralde horretan) eta giza talde horren giza eskubideen defendatzaileei. Haien esanetan, konfinamenduko lehenengo hilabeteetan, tratu txarrak eta torturak jasan zituzten 6.000 atxilotu baino gehiago egon ziren, eta, biktimen artean, kazetari alternatiboak zeuden. Gainera, lehenengo bi hilabeteetan, 30 LGTBI baino gehiago espetxeratu eta jipoitu dituzte. Identifikazioa ezkutuan daramaten poliziek emakume transexualak jazarri, eraso eta iraindu egiten dituzte. Horrez gain, haiei zerbitzu sexualak ematera behartzen dituzte, arau-hauste txikiak egiten dituztenean; esate baterako, identifikazio-agiria ez eramatea. Salaketak aurkeztu badituzte ere, badirudi justizia-sistema desagertu egin dela. Oso deigarria da harrika eraildako emakume transexuala agertu izana.

Hainbat eta hainbat erakunde humanitario bat datoz adieraztean oso kezkatuta daudela Kolonbiako, Guatemalako, Honduraseko eta El Salvadorreko gobernuak osasun-larrialdiari eman dioten tratamenduagatik osasun-larrialdiaren ostean demokraziak atzera egin dezakeelako, bertako estatuak diktatorialagoak, errepresiboagoak eta militarizatuagoak izan daitezkeelako eta giza eskubideak, zuzenbide-estatua eta adierazpen-askatasuna iragandako hamarkadetako atzerapenera itzuli daitezkeelako.

2018ko urtarriletik eta 2020. urte honetako abendura arte, Estatu espainola Nazio Batuen Erakundeko Giza Eskubideen Kontseiluko kidea da. Bere agintaldiaren ondorioz, erantzukizun berezia dauka, herralde kideetako giza eskubideen urraketak behatzeko, jakinarazteko eta salatze orduan eta kontseilu horri bere mekanismoak ezarri ditzala eskatzeko orduan, eskubide horien defentsa bermatuta eta babestuta egon dadin.

Aurrean adierazitako guztiaren ondorioz,

**1. Debako Udaleko Korporazioak** honako hauxe eskatzen die euskal instituzioei (Eusko Jurlaritzari eta Foru Aldundiei):

1.1. COVID-19agatik sortutako osasun-krisiari aurre egiteko gobernu-neurrien esparruan, Kolonbiako, Guatemalako, Honduraseko eta El Salvadorreko herraldeetan giza eskubideak urratzen direla salatzea erakunde eskudunen aurrean.

1.2. Kolonbiako, Guatemalako, Honduraseko eta El Salvadorreko herrialdeetako bake-prozesuekin erabateko konpromisoa dutela eta bertako giza eskubideak errespetatzen dituztela adieraztea berriro.

1.3. Mozio hau aipatutako herrialdeetako ordezkari instituzionalei bidaltzea, euskal herritarrek arlo horretan dituzten proposamenak kontuan hartu ditzaten.

2. Nazio Batuen Erakundeko Giza Eskubideen Kontseiluko herrialde kidea denez, instituzio honek honako hauxe eskatzen dio Estatu espainoleko gobernuari:

2.1. Nazio Batuen Erakundeko Giza Eskubideen Kontseiluko Salaketa Prozeduran, honako honexeri buruzko jakinarazpena egitea: COVID-19agatik sortutako osasun-krisiari aurre egiteko gobernu-neurrien esparruan, Kolonbiako, Guatemalako, Honduraseko eta El Salvadorreko herrialdeetako giza eskubideetan gertatu ahal izan diren urraketak; eta, batez ere, horrelako neurrien ondorioz El Salvadorreko (1992) eta Kolonbiako (2016) Bake Prozesuetan erdietsitako lorpenetan eman ahal izan diren atzerapausoak. Alde horretatik, hori ikertzeko batzordea sortzeko eskatzen zaio.

2.2. Kolonbiako, Guatemalako, Honduraseko eta El Salvadorreko Aldizkako hurrengo Azterketa Unibertsalean (AAU), egitate horien inguruko alarma sozialak eta GGKE-enak islatzea.



Deban, 2020ko irailaren 24an.





## Urriak 17, pobrezia desagerrarazteko nazioarteko egunari buruzko Mozioa

-ZIOA-

Urriaren 17an, pobrezia desagerrarazteko nazioarteko eguna ospatzen da. Nazio Batuen 'Muturreko Pobreziari eta Giza Eskubideei buruzko Printzipio Gidarietan' jasotzen den moduan: "aurrekaririk gabeko garapen ekonomiko, bitarteko teknologiko eta finantza-baliabideen maila duen mundu honetan, eskandalu morala da milioika pertsona muturreko pobrezian bizitzea". Gure gizarteari ez zaio arrotza "eskandalu moral" hau.

Covid-19aren krisia hasi aurretik, datu eta adierazie gehienek argi erakusten zuten herritarren bizi-baldintzek okerrera egin zutela. Egia da herritarren zati batek Atzeraldi Handia 'gainditu' zuela, baina beste zati batek ez zuen egin, eta are garrantzitsuagoa dena, egitetik gero eta urrunago zegoen. 2018an, Euskal Autonomia Erkidegoan 270.294 pertsona ongizate-gabezia egoeran zeuden, duela bi urte baino 40.000 gehiago, eta 130.965 pertsona zeuden benetako pobrezian, duela bi urte baino 8.000 gehiago. Aurreko guztiari gehitu behar zaio arazo nagusietako bat zela lau familietatik batek ez zuela gaitasunik epe ertain eta luzera bizi-baldintza duinak bermatzeko; gure herrian ehunka mila pertsonak ezin zioten aurre egin ezusteko bati, Covid-19aren krisiak eragindakoa, esaterako.

Bestalde, generoa, adina eta jatorria faktore erabakigarriak dira pobrezia egoeran aurkitzeko. 2008an, benetako pobrezia-kasu guztien % 33,9 emakumeak buru ziren familietan kontzentratzen ziren, eta 2018an, hau da, 10 urte geroago, % 50,6. Adin-taldeein erreparatzen badiegu, 15 eta 24 urte bitarteko gazteen egoera da azken urteetan gehien okertu dena. Posizio sozial desberdinen arteko 'igogailuek' funtzionatzeari utzi diotenez, pobrezia gurasoengandik seme-alabengana heredatzen da; hau da, pobrezia eragin berezia eta erabakigarria du haurtzaroan. Eta, gainera, larri zeuden kolektibo hauek bereziki astindu ditu Covid-19aren krisiak.

Baina pobrezia ez da alderdi ekonomikora mugatzen, Nazio Batuen Printzipio Gidarietan jasotzen den moduan "dimentsio anitzeko fenomeno da, eta diru-sarreraren eta duintasun bizi bizi zeko oinarriko gaitasunen falta barne hartzen du (...) muturreko pobreziaren ezaugarri nagusia eskubide zibil, politiko, ekonomiko, sozial eta kulturalen askotariko urraketak eta elkarri lotutakoak dira". Beraz, eman beharreko erantzunek izaera dimentsioaniztuna kontuan izan behar dute pertsona guztien autonomia materiala eta erabateko integrazioa lortzeko.

Batzuek sinetsarazi nahi digute pobrezia arazo pribatua dela, banakako portaeren ondorio 'logikoa'. Pobreziaren iraultza gizarte osoari eragiten dion arazoa da. Arazo publikoa da. Eta, beraz, politikoa. Azken urteetan gurean pobreziari aurre egiteko ezagutu ditugun politika publikoek trantsizio baten beharrean daude. Urgentziazko norabide aldaketa izan behar du; aurkitzen garen krisia ezin da aitzakia izan, aitzitik, jarduteko pizgarria izan behar du.

Horregatik guztiagatik, Debako Osoko Bilkuran onartuta,

1.- Pobreziaren murriztearekin konpromiso irmoa adierazten dugu. Horregatik, honi aurre egiteko beharrezkoak diren neurri ekonomiko, sozial eta fiskalak hartzeko prestutasuna agertzen dugu. Besteak beste, Gizarte-Larrialdietarako Laguntzak funts propioekin osatzeko konprometitzen gara.

2.- Jaurlaritzari eskatzen diogu premiazko neurriak hartu ditzan gure babes-sistema (DSBE/EPO/GLL) Covid-19aren krisiaren ondoriozko beharretara egokitzeko. Eta epe labur eta ertainera, banakotasunaren, unibertsaltasunaren eta baldintzarik ezaren printzipioetan oinarritutako babes-sistema baten aldeko pausuak eman ditzan.

3.- Gizartean pertsonen erabateko integrazioa lortzeko Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren zentraltasuna aldarrikatzen dugu. Horregatik, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuak garatzeko eta indartzeko konpromisoa hartzen dugu, eta konpromiso honi atxikitzeko eskatzen diegu gainerako erakundeei.

  
GILEN GARCIA BOYRA  
Debako alkatea



Deban, 2020ko irailaren 24an.